

Lehiaketa

Inkesten eta esperimientuen habia

Nafarroa



2018-19 ikasturtea

Oinarriak

Nafarroako Unibertsitateko Kultura eta Gizarte Institutuko (KGI) Estatistika Unitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) Estatistika eta Ikerketa Operatiboko Sailak, "TORNAMIRA" Matematika Irakasleen Nafar Elkartearekin, Nafarroako Estatistika Erakundearekin, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuarekin eta INEren Nafarroako ordezkartzearekin lankidetzan "Inkesten eta esperimientuen habia" deritzan lehiaketarako deialdia egin dute. Lehiaketa Nafarroako ikastetxeetako DBHko, Batxilergoko eta Erdi Mailako prestakuntza zikloetako ikasleei zuzenduta dago.

Helburuak

1. Estatistikaren irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzea unibertsitatetik kanpoko hezkuntza mailetan.
2. Ezagutzetan eta gaitasunak osatzea, bai eta Estatistikak, Probabilitateak eta Ikerketa Operatiboak bizitza errealean eta irakaskuntza diziplina guztietan daukaten garrantzia eta erabilgarritasuna zabaltzea ere.
3. Ikasleen artean Estatistika, Probabilitate eta Ikerketa Operatiboarekiko interesa piztea, ia zientzia guztietan funtsezkoak diren tresna gisa.
4. Ikasleak estatistika-proiektu bat egiteko eman behar diren urratsekin trebatzea.
5. Inguratzen gaituzten estatistika-informazioak interpretatzen ikastea eta espiritu kritikoa sustatzea.

Nork du parte hartzeko aukera?

2018-2019 ikasturtean Nafarroako ikastetxeetan matrikulatu diren eta **DBH, Batxilergoa edo Oinarrizko edo Erdi Mailako Graduko Prestakuntza Ziklo bat egiten ari diren** ikasleek har dezakete parte. Taldeka parte hartuko dute (gehienez ere 4 ikasle). Talde bakoitzak tutore bat eduki behar du, eta tutore hori bere ikastetxeko irakasle bat izango da. Aurkeztutako lana ikuskatu behar du tutoreak.

Ikastetxe bakoitzak nahi adina lehiakide aurkezteko aukera dauka, eta irakasle bakoitzak nahi adina lanetako tutoretza egiteko aukera dauka, baina ikasle bakoitzak lan bakar batean parte hartzeko aukera izango du. Ez da beharrezkoa, ezta ere, matematika-irakasgaien esparruan egitea.

Parte-hartzaileen hiru maila daude:

- DBHko 1. eta 2. mailak.
- DBHko 3. eta 4. mailak eta Oinarrizko Graduko Prestakuntza Zikloak.
- Batxilergoa eta Erdi Mailako Graduko Prestakuntza Zikloak.

Zer nolako lana egingo dute parte-hartzaileek?

Lehiaketan parte hartzen dutenek **estatistikako, probabilitateko edo ikerketa operatiboko lan/proiektu bat** egingo dute, eta testu dokumentu batean aurkeztuko da. Gero, baliteke **jendaurreko aurkezpen bat egin behar izatea.**

Zer da estatistikako, probabilitateko edo ikerketa operatiboko lan/proiektu bat?

Galdera esanguratsu bati erantzuna emateko prozesua da, zeinean teknika estatistikoak edo ikerketa operatibokoak erabiltzen baititugu, eta zeinaren emaitza idatzizko txosten batean aurkezten baita. Bertan, segitutako prozeduraren berri eman eta ondorio edo/eta proposamen batzuk lortzen dira.

Zein gairi buruz egin dezaket nire lana?

Gaia bakoitzak nahi duena izango da. Aztergai izan daitezkeen esparruen artean daude Gizartea, Osasuna, Ekologia, Ekonomia eta Kontsumoa, Ingurumena, e.a.

Nola antola daiteke gisa horretako proiektu bat? Proiektuak hiru parte izango ditu:

1. Datu-bilketa.
2. Emaitzen azalpena, analisia eta interpretazioa.
3. Emaitzak/gomendioak/proposamenak.

Nola lor daitezke datuak?

Datuak hartu baino lehen, kontuan hartu behar da zein galderari edo galderei erantzun nahi diegun. Lanerako datuek iturri hauetakoren batean izango dute jatorria:

- *Taldeak prestatutako galdeketa bat*, proiektuarekin lotutako galdetegi bereki baten bidez.
- *Bi produktu, bi tratamendu edo antzeko beste egoera batzuk konparatzeko plan esperimentalak*. Proposatutako esperimendua lotuta egon daiteke ikasleak egiten ari diren irakasgaietakoren batekin. Halaber, ikasleei galdera garrantzitsu bat eragiten dien eguneroko fenomenoren bat aztertu ahal da, eta galdera horri aurreko egitura duen esperimendu baten bidez erantzun dakioke. Egin kontu bi produkturen konparaketa aipatu dela soilik, ikasleen maila dela-eta ez baita gomendagarria produktu gehiagoren konparaketak aztertzea, aukera hori baztertzen ez bada ere.
- *Datu-baseen ustiapena, hala nola estatistikako erakunde ofizialek emandakoak (Eurostat, Estatistikako Institutu Nazionalak., autonomia erkidegoetako estatistika institutuak) edo antzeko erakundeek emandakoak*, sarearen bidez eskuragarri egon ohi direnak.
- *Simulazioa*.

Nola aurkezten dira gisa horretako lan baten emaitzak?

Txosten idatzi bat aurkeztuko da (Office dokumentua, pdf edo antzekoa), eta txosten horretan gutxienez ere honako hauek agertu behar dira:

- gehienez ere 20 lerro dauzkan laburpen bat,
- azterketaren xedea,
- datuak nola bildu diren (kasuaren arabera: inkestaren diseinua eta inkestaren galderei erantzun dieten gizabanakoen aukeraketa; esperimentuaren diseinua eta garapena; datuen iturrien erreferentzia; simulazioaren diseinua),
- datuen deskribapena eta azterketa,
- lortutako emaitzak eta ondorioak, eta
- egin daitezkeen hobekuntzak eta azterketa sakontzeko lanak.

Non ikus ditzaket aurreko urteetan lehiaketa irabazi duten sariak?

Nafarroan aurten egin bada ere bigarren aldiz lehiaketa honetarako deialdia, beste toki batzuetan aurreko urteetan lehiaketak irabazi dituzten ikasleen lanak ikusgai dituzu hemen: <http://www.seio.es/Incubadora/>

Zer bidali behar diet lehiaketaren antolatzaileei?

Txosten idatzia bidali behar duzu. *Gehienez ere 30 orrialde izango ditu.* Txosten hori erabiliko dute epaimahaikideek. Zurea aukeratutako lanen artean badago, zilegi da zuri irabazleak aukeratuko dituen epaimahaiaren aurrean eta jendaurrean egingo den aurkezpen presentzial bat presta dezazun eskatzea. Txostena posta elektronikoko helbide honetara bidali behar duzu: incubadora@unav.es.

Nola emango dut izena lehiaketan?

Mezu elektronikoko bat bidali behar duzu helbide honetara: incubadora@unav.es. Mezu honetan taldea osatzen dutenen izena, irakasle tutorea zein den, Ikastetxea eta zer sailetan parte hartuko duzuen esan behar duzue, apirilaren 8a baino lehen.

Noiz arteko epea daukat nire lana aurkezteko?

Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 1a izango da. Erabakia hartzeko jendaurreko azalpena behar izanez gero, irabazleak aukeratzeko aurrez aurreko aurkezpena parte-hartzaileei jakinaraziko zaie zuzenean.

Eta zalantzak badituz?

Zure zalantzak mezu elektronikoko honen bidez kontsultatu ahal dituzu: incubadora@unav.es

Lanen balioespena

Antolatzaileek aurkeztutako lanen lehen aukeraketa bat egingo dute, eta aukeratutako lanak ekainaren 17an Nafarroko unibertsitatean ICSko gelan aurkeztuko dira ekintza publiko batean. Epaimahaiaren parte hartzeko aukera izango dute, hainbat kideren artean, Nafarroako Kultura eta Gizarte Institutuko kideek, NUPEko Estatistika eta Ikerketa Operatiboko Saileko irakasleek, TORNAMIRA elkarteko irakasleek eta Nafarroako Estatistika Erakundeko kideek. Aurkeztutako lanei buruzko erabakia emango dute epaimahaikideek. Erabakia hartzerakoan, epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu:

- Aukeratutako gaiaren originaltasuna.
- Helburuak, proiektuaren faseak eta emaitzak argi azaltzea.

- Estatistika-teknikak zuzen aplikatzea (estatistika datu-bilketaren diseinuan aplikatzea, datuen azalpen zuzena estatistikaren ikuspegitik, emaitzen azterketa estatistikaren ikuspegitik, lanaren emaitzak lanaren helburuekin bat etorritik).
- Proiektuaren emaitzak eta analisi kritikoa (lana hobetzeko aukerak eta lana sakontzeko aukerak).
- Azken txostena (egitura antolatua: aurkibidea, sarrera, idazketa, taulen eta grafikoen aukeraketa egokia, emaitzak eta ondorioak).
- Berrikuntza emaitzen aurkezpenean.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta zilegi da edozein sari hutsik uztea, epaimahaiak proposatuta.

Egiletza

Ikasleek osorik egin behar dituzte lanak, eta argitaragabeak eta originalak izango dira. Ez dira onartuko partez edo osorik plagiatutako ikerketak, eta ikasleek egin ez dituzten lanak ere baliogabetuko dira. Alde horretatik, ahozko aurkezpenetan, ikasleek egindako lana baliosten lagunduko duten galderak egiteko aukera izango du epaimahaiak.

Sariak

Talde irabazleetako ikasle eta tutore bakoitzak sari bat jasoko du, kalkulagailu zientifikoa eta bluetooth aurikularrak, eta beste erakunde batzuek eskaintzen dituzten xehetasunak ere izango ditu. Halaber epaimahaiak Nafarroa **fase nazionalen** ordezkartuko duten ordezkaria edo ordezkariak aukeratuko ditu. Fase nazionala Kantabrian egingo da (<http://www.seio.es/>), 2019ko uztailaren 2tik 4ra arte.

Parte-hartzaile guztiek eta beren tutoreek parte hartu dutela egiaztatzen duen diploma bat jasoko dute. Sariak eta diplomak jendaurreko ekitaldi batean emango dira.

Argitalpena

Saritutako lanak KGIren, NUPen eta TORNAMIRA elkartearen web-ean argitaratuko dira, eta beren egileei, tutoreei eta ikastetxeei buruzko informazioa ere jasoko da.

Eskubide erreserba

Antolatzaileek lehiaketaren baldintzak aldatzeko eskubidea daukate, baita lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea ere, betiere horretarako arrazoi justifikatu bat baldin badago.

Lehiaketaren oinarrien onarpena

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea.